

**Charles Baudelaire**

# **Wagner Parisen**

**euskaratzailea: Oier Alonso**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Oier Alonso.

Euskarazko edizioa: Infomart, 1998

Jatorrizkoaren data: 1860

Charles Baudelaire euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=146>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1196>

# Hitzaurrea

Baudelaire izena entzuterakoan poeta berba da etortzen da beti burura. Gauza ederra da hau, baina liburu honetan bere beste alderdi bat aurkeztuko dugu, edo agian berdina, batek daki. Hona hemen Charles Baudelaireren idatzi bat. Idatzia bai, eta poemarik ez bada ere poesiaz beteriko lana dugu. Tradizioak liburu bakarreko idazletzat hartzen du Baudelaire. *Les fleurs du mal* bere lanetan handiena dugu, ados. Liburu beltz honek poesiari ematen dion argi zoragarriak nolabaiteko itzala egiten die bere beste lanei. Zabalagoa izanik, *Petits poèmes en prose* edota *Les paradis artificiels* ere aintzat hartzen dira batzuetan, baina kritika lan gehienak gaitzetsiak izan dira orokorrean. Poesia gauza ororen gaineratik aldarrikatzen zuen gizonaren prosari ezin diogu guk esan forma ez duela zainduko, ardura formal izugarriak jorratu eta konpontzen ditu, baina idaztea osotasun organikoa bailitzan sentitzen du. Honetatik landa arteak eskaintzen zizkion lan handi guztiak

Irekitasun honen harira uler dezakegu lan honek azaltzen duen ikusmoldea, arteari dago-kionez. Saiakera aberatsa agertzen digu egileak musika arloan erabat ezjakina dela aitortu eta gero. Ezjakite honek poetaren irudimena zirikatzen du, ezaguera ezak estetika baliabideak indartzen baititu kasu honetan. Jakinaren gaine-tik sentikortasuna ezartzen du, hau da, gizakiak sentitzeko duen ahalmena, ideia hau sortzeko ere baduen ahalmenari lotuz gero.

Bestalde, ukaezina da Baudelairek duen tre-betasuna arte adierazpen guztien balioa asma-tzeko, jateko egiten badu ere, literatur hutsak ez baitio etekin nahikorik ematen, ez dugu inoiz behar den bezala eskertuko Baudelaireren kriti-ka lana. Berak ezagutarazi zituen Poe eta pinto-re inpresionistak ere, adibide pare bat ipintzea-rran.

Lehen aipaturiko ahalmena da, izan ere, Bau-delaire eta Wagnerren kezka bizia. Gizakia edo-zer egiteko gai ikusten dute, musikariaren lagu-na zen Nietzschek *Supergizonaren* bitartez adie-razten duen gisan. XIX. mendeko teoria hauek beldurgarritzat hartu izan dira maiz, eta naziak

pentsalari hauek bereganatzen saiatu zirenean, naziei sinestea izan zen errazena, pentsamendu heldugabe eta izutiaren eskua dago, ordea, honen guztiaren atzetik, erreakzioa atzerakoi hutsa, alegia. Indarra jorratzen dute egile hauek, eta ez indarkeria, gizakiaren handitasuna gorai-patzen dute. Gizakiarenganako fede honek hun-kitu baino ezin du egin, nolabaiteko humanismoa dugu azken buruan.

Hausnarketa honetan Antzinaroa dute aitzin-dari poeta eta musikariak. Baina ez dute *pasti-che* neoklasikorik egingen. Mito zaharretik muina besterik ez dute jasoko, gaitasun sortzailea eta unibertsaltasuna.

Mito berriak hizkuntza berri baten bidez aur-kezten dizkigu Wagnerrek, itzeleko indar eta tre-betasunez. Baudelairek, aldiz, kazetaritzako esti-loa eta estilo poetikoa bat egiten ditu. Aurreko guztia zeharo garbi azaltzeaz gain, eresi ederra eta atsegina idazten dio arteari, sortu eta senti-tzearen arteko harremanetan sakonduz.

**Oier Alonso**

# **Wagner Parisen**

Atzera egin dezagun hamahiru hilabete, mesedez, arazoaren jatorrira. Laga iezadazue hemen nire izenean asko hitz egiten. Askotan hau oso egokia ez dela esaten dute, eta arrazoiz gainera, baina hemen, berriz, apaltasuna dakar berekin. Idazlea zintzo hitz egitera bultzatzen du. Zeregina murriztuz, lana errazagoa egiten du. Azken finean, egiazaletasun honen alde irakurle inpartzial asko izango direla jakiteko ez dago probabilista trebea izan beharrik. Kritiko lañoak, bere inpresioak baino ez duenean kontatzen, jarraitzaile ezezagunen inpresioak ere kontatzen ditu, jakina.

Duela hamahiru hilabete, ba, zurrumurru handia zabaldu zen Parisen. Bertan luzaro bizi izan zen musikagile aleman bat guregana itzuli zen. Hemen ezezaguna eta behartsua zen, lan kaskarrak egiten zituen. Baina alemanek orain dela hamabost urte onartu dute bere talentua. Gaztetako miserien lekuko izan zuen hirira bueltatu zen ba, bere lana gure artean zabaltzeko.

Wagnerri buruz gauza gutxi entzunak ziren Parisen.

Rhinez bestaldean drama lirikoaren berrikuntza jorratzen ari zela doi-doian genekien, baita Liszt-ek gogo biziz onartu zituela ere berritzailearen usteak. Fétis jaunak, aldiz, errieta antzeko bat bota zion. *Revue et gazette musicale de Paris*-eko aleak begiztatu nahi dituztenek berriz ere ikusiko dute iritzi zentzuzkoenak izateaz harro dabilzan idazleek ez dutela ez zentzurik eta ez neurririk erabiliko kontrako iritziak kritikatzekoan. Irain samingarriak baino ez dira izaten askotan Fétis jaunaren artikuluak. Baina musikazale zahar honen sumindurak, berak gaitzetsi eta barregarri utzi nahi dituen lanen garrantzia ikusteko besterik ez du balio. Bestalde, hamahiru hilabetetik hona ez da jendearen jakingura murriztu eta Richard Wagnerrek beste laido asko jasan izan ditu. Duela zenbait urte Théophile Gautier, Alemaniara egin zuen bidaia batean, *Tannhäuser*-en antzezpenak oso hunkitu zuen. *Moniteur* aldizkarian adierazi zituen bere inpresioak, bere idatzi guztiek xarmant egiten duten segurtasun plastiko hori zeramatela. Baina doku-



mentu ezberdin hauek ez ziren jendearen gogotan gelditu, denbora-tarte handietan ematen baitziren.

Richard Wagnerrek bere konposizioen zatiak Italiarren Aretoan entzunaraziko zituela karteletan iragarri bezain pronto gauza barregarria gertatu zen. Gehiagotan ikusi dugu gertaera hau. Frantsesek deliberatu eta aztertu aurretik zerbaiten alde edo kontra egiteko duten beharra frogatzen du honek, behar arin eta senezkoa. Batzuek gauza harrigarriak iragarri zituzten, besteek, ordea, entzun barik zeuzkaten lanak gogor laidotuz atsegin hartu zuten. Berdin jarraitzen du egun egoera irrigarri honek. Inoiz ez da hain eztabaidatua izan kontu ezezagun bat. Berba gutxitan, doktrinen arteko borroka bailiran iragarri ziren Wagnerren kontzertuak, arteak izaten dituen krisialdien modura. Liskar hauetan irrika modu oso nahasian askatzeko ohitura dute kritikari, artista eta publikoak. Baina zorioneko krisialdiak dira, eta herri batek duen buru-lanaren osasuna eta aberastasuna adierazten dute. Nolabait ahaztuta geneukan hau, Victor Hugoren sasoi ederrak izan zirenez geroztik. Hurrengo

hitzak Berlioz jaunaren liburuxkatik (1860, otsailak 9) hartu ditut: «Antzoki Italiarreko egongela gauza ikusgarria zen lehen kontzertuko gauean. Amorrua eta oihuak entzuten ziren eta eztabaidak ekintza bilakatzeko antza zuen». Duela egun batzuk, operan, subiranoa ez balitz benetako istilua sor zitekeen, batez ere publiko *jatorragoa* egonez gero. Errepikapen orokorretariko baten bukaeran ikusi nuen gizona gogoratzen dut, izen oneko kritikaria. Kontrol bulegoaren aurrean ipini zen, oso puztuta, jendetzari aurre egin zion ia irteten utzi barik eta barreka hasi zen mania-ko bat bezala, osasun etxeetan *aztoratuak* deitzen dieten koitadu horien modura. Bere burua jende guztiak ezagutzen zuela uste zuen gizagai-xoak. Zera esango zuela ematen zuen: «Ikus nazazue barre egiten, ni, S... ospetsua! Eta zuen irizpidea nirera egokitzeaz arduratu». Lehen aipatu dudan liburuxkan, espero zaion baino berotasun gutxiagoz, zera gaineratzen du Berlioz jaunak: «Hortaz, hortxe dauzkagu absurdua, burugabekeria eta gezurra ere bai, gauza benetan miragarria. Argi uzten du honek, gure artean behintzat, bihotzak eta setak besterik ez dutela

berba egiten, zentzua eta gustu ona isilaraziz, kalean entzuten ez den musika baloratzeko orduan.»

Wagner adoretsua izan zen: bere kontzertuko egitarauak ez zeukan ez bakar-saiorik, ezta bir-tuosoak eta euren ahaleginak maite dituen publikoak hain gustuko duen nabarmentzerik. Harmonia zatiak, koruak eta sinfoniak baino ez. Borroka bortitza izan zen, egia da, baina bere baitan axolagabetu zenean publikoa, sua hartu zuen, pentsamendua ezin hobeto adierazten duen zati zoragarriren bat entzuterakoan. Wagnerren musika berezko indarrez nagusitu zen. *Tannhäuser*-en obertura, bigarren ekitaldiko martxa ospetsua, bereziki *Lohengrin*-en obertura, eztei-musika, eta eztei-eresia ere izugarri txalotuak izan ziren. Gauza ugari ilun gelditu zen zalantzarik gabe, baina buru inpartzialek esaten zuten: «Konposizio hauek eszenarako eginak direnez gero itxaron beharra dago eta ondo definitu barik geratu diren gauzak plastikak argituko ditu». Bitartean Richard Wagnerrek gauza gorenen mailan zegoela frogatu zuen, sinfoniagile bezala eta soinuaren hamaika konbinazioen

bidez gogoaren ekaitzak itzultzen dituen artista bezala ere bai.

Maiz entzun dut musika ezin dela gauzak segurtasunez adieraziz harrotu, hitzaren edota pinturaren antzera. Hau egia da neurri batean, baina ez da guztiz egia. Bere modura adierazten du eta berezkoak dituen bideak erabiliz. Musikan, pinturan eta berba idatzian bezala (azken hau arteen arteko positiboena izanik ere), entzulearen irudimenak beteko duen hutsunea gertuko da beti.

Ardura hauek pentsarazi diote Wagnerri arte dramatikoa arte nagusia dela, sintetiko eta perfektuena, arte anitzen bilkura edo *kointzidentzia* baita. Hortaz, plastikaren laguntza, dekoratua, irudizko pertsonaiei egiten zaien atxikitzea eta hitz bera ere, une batez baztertzen baditugu, ukaezina da sugestioa erabat azkarra eta zuzena dela musika hutsa benetan adierazgarria denean, eta artista inspiratu zuten ideia antzekoak asmatzeko aukera izango dute gizon sentiberak. Adibide bat ipiniko dut berehala, *Lohengrin*-eko obertura ospetsua. Berlioz jaunak sekulako laudorioa idatzi zion estilo teknikoan. Baina

ni bere balorea sortzen dituen sugestioen arabera azpimarratzen saiatuko naiz.

Garai hartan Antzoki Italiarrean banaturiko egitarauan zera irakurtzen dut: «Lehenengo konpasetatik, ontzi sakratuaren zain dagoen errukiorraren arima *espazio infinituetan murgiltzen da*. Agerpen bitxi bat, irudi bat pixkanaka gorpuzten ikusten du errukiorrak. Agerpena gehiago zehazten da gero eta *aingeru-tropa miragarria* bere aurretik pasatzen da, guztien artean kopa sakratua daramatelarik. Jarraigo santua hurreratu egiten zaio. Jainkoak hautatuaren bihotza pixkanaka asaldatu egiten da, handitu, zabaldu. Asmo esanezinak pizten zaizkio, *handituz doan dohatasun santu bati ematen zaio*, beti agerpen argidunetik gertu, eta jarraigo sakratuaren erdian Graal Saindua bera agertzen denean, *estasi-gurtza batera amiltzen da, tupustean mundu osoa desagertu bailitzan*.

»Graal Sainduak orduan bedeinkapena isurtzen dio otoizgile santuari eta bere zalduna izendatzen du. *Sugarren distira baretu egiten da*. Uzten duen lurrari irribarrez, aingeru-tropa zerura itzultzen da, alaitasun santuaz. Gizon garbien

zainpean laga dute Graal Saindua, *gizon horien bihotzetan edari jainkotiarra zabaldu da*, eta tropa agurgarria *espazioko sakontasunean* desagertzen da agertu den era berean».

Segidan ulertuko du irakurleak pasarte hauei zergatik ematen diedan garrantzirik. Liszten liburua hartuko dut orain, eta pianojole ospetsuak (artista eta filosofoa dena) zati berdina bere gisara itzultzen duen orrialdean zabalduko dut:

«Sarrera honek osagai *mistikoa* eduki eta agertu ere egiten du, lan honetan beti present eta aldi berean ezkutuan dagoena... Sekretu honek duen indar kontaezina irakasteko, lehenik *santutegiaren edertasun esanezina* erakusten digu Wagnerrek. Zapalduak mendekatzen dituen eta sinestunei fedea eta maitasuna baino eskatzen ez dien Jainkoa bizi da santutegi honetan. Graal Sainduaren hastapenak irakasten dizkigu: usteltzen ez den egurrezko tenpluko distira erakusten digu, horma usaintsuak ditu, urrezko ateak, asbestozko habeak, opalozko zutabeak, harribitxiko paretak... Atarira ez da bihotz handia eta eskuak garbi dituen baina hurreratzen. Ez

digu inola ere bere benetako egitura izugarria erakusten, baizik eta gure zentzu ahulak bideratuz, *uhin urdin* baten isla aurkezten digu edota *ortzadar koloreko laino* batek sortua.»

«Hasieran *logale den izara handi* baten antzeko doinua dugu, hedatu egiten den eter *lurrintsua*, gure begi ikasgabeen aurrean eszena sakratua marraztu dadin. Biolinen eskuetan bakarrik geratzen da efektu hau. eta zortzi atril ezberdinetan daude banaturik. Soinu harmoniko-  
etako konpas batzuk eta gero ahal den notarik altuenak entzuten ditugu. Gero, haize-instrumentu gozoenak hartuko dute motiboa, tronpek eta fagotek, tronpeten eta tronboien sarrera prestatuz, bata bestearen atzetik. Hauek laugarren aldiz errepikatzen dute doinua *kolore-eztanda distiratsuaz*, une apart horretan eraikin santuak gure *begi itsutuentzat distira egin bailuen, argitasun distiratsua*. Baina argitasun bizi hau, pixkanaka eguzkiko dirdira izatera ailegatzen dena, bizkor itzaltzen da, zeruko leinuruen antzera. Berriz loditzen da hodeien *lurrin gardena*, begitazioa agertzerakoan zeukan intsentsu nabarrak inguraturik desagertzen da, eta zati

hau hasierako sei konpasekin bukatzen da, konpas hauek *zerutiarrago* bihurtu direlarik. Orkestrak etengabe izan duen *pianissimoak* sentiarazten digu bere *mistizismo* ezin hobea, eta meta-lek sarrerako motibo bakarrak egiten duen bide zoragarria gailendu egiten dutenean bakarrik apurtzen da. Hain da ederra non gure sentime-nak hunkitu egiten baitira *adagio* zoragarri hau entzuterakoan.»

Ene irudimenak nahitaez egiten duen zati bereko itzulpena nire hitzetan egiteko eskubidea al dut? Lehen aldiz entzun nuenean, begiak itxita, lurra ez ukitu arte goraturik sentitu nintzen. Ez nintzateke ba ausartuko nire irudipenak atseginez kontatzen, aurreko irudipenei lotzeko ez balitz. Badaki irakurleak zein den gure helburua: benetako musikak pertsona ezberdinetan antzeko ideiak sortzen dituela frogatu. Bestalde, ez da zorakeria aldeztu aurretik eta azterketa eta konparaketa barik hausnartzea. Soinuak kolorerik *ezin duela* adierazi esango bagenu benetan arraroa izango litzateke. Koloreek *ezin dutela* doinu baten ideia eman edota soinua eta kolorea espresatzeko egokiak ez direla esatea bezala.



Gauzak elkarrekiko parekotasunen bitartez adierazi izan dira beti, Jainkoak mundua osotasun konplexu eta zatiezina bezala eratu zuen egunetik.

Natura tenplua da non harroin biziak  
Hitz nahasiak botatzen baitituzte batzuetan;  
Gizonak gurutzatu egiten du sinboloz egitiko basoen bitartez  
Hauek behako familiarraz begiratzen diote gizonari.  
Urrunetik nahastu egiten diren oihartzuen modura  
Batasun beltz eta sakonean  
Gaua eta argitasuna bezain handia  
Usainek, koloreek eta soinuek harreman zorrotza dute.

Jarraitu egingen dut. Lehengo konpasak gogoratzen ditut, irudimen biziko gizonak ametsetan ezagutu ohi duten zorioneko inpresioa nozitu nuen. *Nahigabearen lokarrietatik* aske sentitu nintzen, *leku altuetan* ibiltzen den aparteko atse-

*ginzaletasuna* aurkitu nuen oroitzapenaren bidez (lehen aipaturiko egitaraua ez nuela gogora dezagun). Amets handi batek menperatzen duen gizon baten egoera zoragarria irudikatu nuen orduan, erabateko bakardadea nahi barik, baina zeruertz *mugagabea* eta *egundoko argitasun lausotua* zeukan bakardade hark, handitasun hutsa, inolaz ere apaindu barik. *Argitasun biziagoa* sentitu nuen segidan. Argiaren indarra oso azkar hazten zen, hiztegiak emandako ñabardurak ez dira *etengabe birsortzen ari den sugar eta zuritiesunaren areagotzea* adierazteko nahikoa. Inguru dirdaitsuan ibiltzen den arima baten ideia otu zitzaidan orduan, *atseginzaletasun eta jakintzaz* eginiko estasia, mundu naturalari oso urrun eta gainetik begiratzuz.

Hiru itzulpen hauen arteko desberdintasunak erraz ikusiko ditugu. Wagnerrek *ontzi saildua dakarren aingeru tropaz* berba egiten digu. Begitazio lurrintsu batean finkaturik dagoen *mirarizko monumentu ederra* ikusten du Lisztek. Nire ameskeriak gauza material gutxiago ditu, lauso eta abstraktuagoa da. Baina parekotasunei eustea da garrantzitsua. Gutxi izanik ere, froga osa-

tuko lukete, baina zorionez asko eta izugarri hunkigarriak dira. Hiru itzulpenetan topatzen dugu *gogo eta gorputzaren zorioneko sentsazioa; isolamendua; ikaragarri handi eta ederra den zerbaiten kontenplazioa; harritu arte begiak eta gogoak pozten dituen argi bizia; azken finean asmatu ahal den muturreraino hedatzen den espazioak* eragiten duen sentsazioa.

Musikari bakarra da Wagner materia eta gogoaren espazioa eta sakontasuna *pintatzeko*. Buru askok, onenetarikoek anitzetan atera duten kontua da hau. Gizon izpiritual eta naturalaren baitan gehiegizkoa, neurrigabea eta handinahia den guztia mailaketa finetan adierazteko trebetasuna dauka Wagnerrek. Musika gartsu eta zapaltzailea entzuterakoan, opioak ematen dituen zorabioko asmoak ilunpeko barrenean pintaturik aurkitzen direla ematen dit batzuetan, asmakeriak penatuta.

Harrezkero, hau da, lehen kontzertutik aurrera, berebiziko lan hauen ulerkuntzaz jabetzeko gogoak harrapatu egin ninduen. Eragiketa izpirituala (hori iruditzen zitzaidan behintzat) jasan nuen, agerkunde bat. Gogorra eta izugarria izan

zen nire gozamina eta ezin nion errepikatu gura izateari ihes egin. Weber eta Beethovenek lehenago ezagutarazi zidaten gauza asko zegoen probatu nuen hartan, baina definitu ezin nuen gauza berririk ere bai. Ezintasun honek atsegin arraro bat, amorrua eta jakinahia eragiten zizkidan, dena nahastuta. Egun askotan, denbora luzean, zera esaten nion nire buruari: «Non entzun ahal izango dut gaur gauean Wagnerren musika?» Pianoa zeukaten lagunak behin baino gehiagotan izan ziren nire biktimak. Laster, berritasun guztiekin egiten den legez, gozamen hutsalak maite zutenentzat gauero zabaltzen ziren kasinoetan, Wagnerren sinfonia zatiak hasi ziren entzuten behin eta berriz. Musika honen handitasun dirdaitsua trumoiak leku txarrean bezala jausten zen leku hartan. Zarata bizkor zabaltzen zen, eta benazko gizon sentiberek ikuskizun barregarria ematen digute jendetza ustelaren artean *gonbidatuen* martxa ospetsua, *Wartburg* edota *Lohengrinek*o eztei dotoreak hobeto entzuten eta gozatzeko saiatzen direnean.

Hala ere melodiako esaldien errepikatze sarrietan, opera beretik hartutako zatietan mis-

teriozko asmoak eta ezezagunak ditudan metodoak agertzen dira. Zergatiaz jabetzea eta nire gozamina ezaguera bilakatzea erabaki nuen orduan, antzezpen batek azalpen biribila eman artean. Lagunei eta etsaiei galdetu nien. Fétis jaunaren panfleto astun eta gogaikarria irentsi egin nuen. Liszten liburua irakurri nuen eta azkenik, *Artea eta iraultza* eta *Etorkizuneko artelana* lortzerik ezean, itzuli gabe baitziren, *Opera eta drama* izenburua daukana lortu nuen, ingelesez itzulita.

## II

Xelebrekeria frantsesek euren bidea jarraitzen zuten eta kazetagintza arruntak atsedena batik ihardun zuen bere kokinkeria profesionalentan. Wagnerrek beti esaten zuen musikak (dramatikoak) sentimendua esan egin behar duela, sentimendura moldatu behar dela hitzaren doitasun berdinez. Baina jakina, beste modu batera. Hau da, hitzak (positiboegia baita) eman ezin duen sentimenduaren alde zehaztugabea adierazi behar du musikak. Honekin ez zuen buruzentzudun orok onartzen duena besterik esaten. Baina foiletoiko ergelkeriak limurtutako jende askok maisuak beste gauza bat esaten zuela asmatu zuen, musikak gauzen alde positiboa adierazteko gaitasuna duela, alegia. Jende honek rola eta eginkizunak nahastu egiten zituen. Faltsukeria honen ondorioz gorrotoak eta ezjakiteak eragin dituen esamesak aipatzea alferreko bezain aspergarria litzaidake. Jendearen aburuak aurrera ezin egitea izan da ondorioa. Baina Parisen, beste inon baino gehiago, ezin da

bere burua dibertigarritzat duen luma geldiarazi. Jendearen jakingura wagnerri zuzenduta egonik, bere bizitza, ahalegin eta oinazeaz hitz egiten ziguten artikulu eta liburuxkak sortu ziren. Gaur txit ezagunak diren idazki hauen artean, maisuaren adiurrea eta izatea argitu eta zehazteko egokienak baino ez ditut hartuko. *Munduan den guztiagatik nahigabetzeko izaera maitagarri bat sehaskatik izaten ez duen gizona ez da inoiz gauza berririk asmatzera iritsiko* esaldia idatzi zuenak oinazeak topatuko zituen batez ere bizitzaren borrokan. Artista orok duen sufritzeko erraztasun honetan topatzen diet azalpena Wagnerren aburu iraultzaileei. Joera hau gainera handiagoa da zenbat eta handiagoa den artistak duen gaitasuna zuzena eta ederra dena bereizteko. Etsipenek sumindua eta ametsek etsitua, bihotz sumindu eta urduri bati barkatu diezaiokegun hanka-sartze baten jarraian, musika txarra eta gobernari eskasen arteko parekotasuna asmatu zuen. Artearen idealak egunerokoa erabat menperatu dezan nahi izanda, iraultza politikoek arte iraultzen bidea erraztuko zutela espero egin zuen (itxaropen benetan gizatiarra).

Wagner beraren arrakastak gezurtatu ditu bere susmo eta itxaropena. Frantzian despota baten agindua behar izan da iraultzaile baten lana entzuteko. Halaber, bilakaera erromantikoa monarkiak lagunduta ikusi dugu Parisen, liberal eta errepublikarrak klasikoa deituriko literaturan jarduten zuten bitartean.

Bere gaztediaren gainean idatzitako gauzetan irakurtzen dudan arabera, teatroan bizi izan zen oso txikitatik, eszenetatik ibiltzen zen eta komediak idazten zituen. Weberren musikak eta Beethovenenak ere bai indar itzelaz eragin zioten bihotzean pixka bat beranduago. Laster pilatu zitzaizkion urteak eta ikasketak, ezin izan zuen modu bikoitzean baino pentsatu, poetikoki eta musikalki. Ideia oro bi eratan asmatzen zuen aldi berean, arte baten eginkizunak bestearen muturrean hasi eginez. Bere gaitasunen artean hain handia zuen sen dramatikoak musika lanen azakeria, huskeria, eta aldrebeskeriei kontra egitera bultzatu zuten. Horrela ba, arte iraultzak zuzentzen dituen probidentziak Alemaniako gazte baten buruan onduarazi zuen XVIII. mendea astindu zuen arazoa. *Prosa frantsesera itzu-*



*litako lau opera poema* lanarentzat idatzi zen *Musikaren gaineko gutuna* hitzaurrea arretaz irakurri duenak ezin du honi buruz inolako zalantzarik izan. Gluck eta Méhulen izenak maiz agertzen dira idazkian begikotasun sutsuaz. Fétis jaunak alabaina, musikaren nagusitasuna betiko ezarri nahi du drama lirikoan. Baina ez gustatzen bazaio ere, Gluck, Diderot, Voltaire eta Goethe bezalako gizonen aburua kontuan hartu beharra dago. Azken biek euren teorietan maiteenak ezeztatu badituzte ere, ez da adore galtze eta etsipena baino izan. *Musikari buruzko gutuna* gainerik irakurtzerakoan, oihartzun mnemonikoa bailitzan, gogora etorri zitzaizkidan benetako musika dramatikoak notak eta erritmoa erantsita dituen irrikaren oihua edota hasperena besterik ez zela esaten zuten Dideroten pasarteak. Arazo zientifiko, poetiko, eta artistiko berdinak errepikatzen diren garaia guztietan. Wagnerrek ez du uste ezer asmatu duenik, baizik eta asmo zahar bat berretsi egin duela. Asmo zahar honek garaitu eta garaile txandaka izaten jarraituko du. Egia esan, izugarri errazak dira arazo hauek guztiak. Harrigarria da *etorkizuneko musikari* (eta

esapide oker bezain izen onekoa erabiltzen ari naiz) kontra egiten ikustea, opera libretoak jende zentzudunari eragiten dion oinazearengatik kexatzen diren pertsona berberak.

*Musikari buruzko gutuna* honetan bere antzinako hiru lanen azterketa labur eta garbia egiten du, *Artea eta iraultza*, *Etorkizuneko artelana* eta *Opera eta drama*. Antzerki grekoak biziki arduratzen du egilea, normala denez. Oraina gorrotatzen duela eta, drama lirikoko baldintza berrien ezarpena justifikatzeko iraganean miatu behar duen musikari antzerkigileari derrigorrezkoa zaio horrela pentsatzea. Duela urte bat baino gehiago zera esaten zion Berlioz eskutitz batean: «Publikoari errespetu aldaezina sentiarazteko arteak bete behar dituen baldintzak zeintzuk diren galdetzen nion ene buruari eta arazoaren haria ez galtzearren antzinako Greziara joan nintzen abiapuntua bilatzeko. Artelan nagusia topatu nuen han, drama alegia. Dramaren ideia, oso sakona izanik ere, argitasun osoz eta modurik ulergarri eta unibertsalenean azaldu daiteke. Harritu egiten gaitu gaur hogeita hamar mila greziarrek Eskiloren tragedien antzezpena eten-

gabeko interesaz ikusi ahal izateak. Baina horrelako emaitzak lortzeko bidea zein zen aztertzen badugu, arrazoia asmatuko dugu, horra: arte guztiak xede berdinerak elkarrekin zuzentzen direla. Hau da, artelan ezin hobe eta egiazkoa izatera zuzentzen direla. Honek arteak dituen adarren arteko harremanak ikertzera bideratu ninduen, plastika eta mimikaren arteko lotura asmatzerakoan, musika eta poesiaren artekoa ikertu nuen. Ordura arte kezkatzen ninduen iluntasuna desagerraraziko zuen argitasuna ateratu nuen azterketa horretatik.

»Hain zuzen ere, arteren batek muga zehar-kaezinak topatzen dituenetan beste artearen eragin eremua berehala hasten dela asmatu nuen, zehaztasun zorrotzaz gertatzen den fenomeno dugu gainera. Arte bien arteko bilkurari esker argi eta garbi adierazi daiteke arte bakoitzak bere kabuz adierazi ezin duena. Bietariko bakar baten adierazmenaren bitartez biek espresatu dezaketena ematen saiatuko bagina iluntasuna lortuko genuke halabeharrez, lehenik nahastea eta jarraian gainbehera eta arte bakoitzaren usteltzea.»

Bere azken liburuko hitzaurrean gai bera jorratzen du modu honetan: «Nire eredu dramatiko eta musikalarentzat benetako oinarria aurkitu nuen artista batzuen hainbat lan arrarotan. Oraingoan historiaren gorabeherak nik ulertzen nituen bezala eskaintzen zizkidaten antzerki eta bizitza publikoaren eredu eta lotura. Atenas zaharreko antzerkian topatu nuen ereduak. Bertan erlijio jaiekin batera egiten ziren ospakizun berezi batzuetan bakarrik zabaltzen ziren antzokiko ateak. Estatuko gizon agurgarriek poeta edo zuzendari gisa hartzen zuten parte ospakizun hauetan eta hiri eta herrialdeko jendeak apaiztatzat hartzen zituen. Jende hura oso irekia zen antzezlanaren sublimazioa dastatzeko orduan. Poemarik sakonenak, Sofokle edo Eskilorenak adibidez, herri xeheari eskainita ziren, eta jendeak ulertuko zituela bazekiten egileek».

Ideal dramatiko baten gutziak, erabateko eta zapaltzailea, Wagnerren patua eratu du. Ideal honen arabera, xehetasun guztiek osotasun efektua lortzeko bat egin behar dute. Musiak kontu handiz markatu eta azpimarratzen du deklamazioa, kantariak ezin du jarraibide hori

baztertu silaba batean ere ez, irrikak marrazturi-ko arabeskoa bailitzan. Dekoratu eta eszenaratzeko zehaztasun txikiak ere arreta berdinez zainduko dira. Betiereko postulaziotzat zuen hau Wagnerrek. Libretoak eragindako eragozpenez libratu eta Rienzi, gaztedian arrakasta handia izan zuen operaz arnegatu egin zuen egunetik ezinbesteko eredu honen atzetik joan da beti bidea hautsi gabe. Horrela ba eta harritu gabe, antolatze sistema bikaina eta Antzinaroko tragedien arkitektura gogora ekartzen duen ordena eta zatiketarako duen zentzua aurkitu diet itzultita dauden bere lanei, *Tannhäuser*, *Lohengrin* eta *Itsasontzi mamua* izenekoei bereziki. Baina garaietan zehar aldizka ematen diren ideiak eta fenomenoak berpizten diren bakoitzean, egoeraren eta aldaeraren ezaugarria dute beti. Antzinateko Venus distiratsuak edo apar zuritik jaiotako

Afrodita ez du alferrik zeharkatu Erdi Aroko iluntasun lazgarria. Jada ez da Olinpon bizi artxipelago perfumatu baten ertzean. Haitzulo zoragarri baten hondora erretiratu da, egia da, baina Febo onuragarriarena ez den su batek argituta. Lurrera jaisterakoan, Venus infernura hurreratu

da eta hainbat ospakizun gaitzesgarritan deabrua goratu egingo du zalantzarik gabe, haragiaren printzea eta bekatuaren jauna. Gustu sotila eta edertasun klasikorako zentzu ezin hobea izanik, Wagnerren poemek izpiritu erromantikoa dute halaber, neurri handi batean. Sofokle eta Eskiloren handitasuna gogoratzen badituzte ere, plastikoki katolikoek garaiko *misterioak* ere ekartzen dituzte burura. Erdi Aroko elizetako hormetan edota tapiz ikaragarrietan agertzen ziren irudi handientsuen antza daukate. Kondairazko itxura orokorra dute: *Tannhäuser*, kondaira, *Lohengrin*, kondaira, *Itsasontzi mamua*, kondaira ere bai. Ez da buru poetiko orok duen berezko joera bakarrik Wagner ildo berezi honeztatik eraman duena, drama lirikoaren baldintza hoberenak lortzeko hartutako erabakia ere baita.

Bere liburuetan ere, arazo hau ondo argitzeaz arduratu da beti. Gai guztiak, hain zuzen, ez dira egokiak drama benetan unibertsala izan dadin. Generoko koadrorik biribil eta zoragarriena ere ezin dugu fresko bihurtu ezer galdu gabe. Poeta dramatikoak gizonaren bihotz honen bila-

kaeran topatuko ditu batez ere mundu osoan uler daitezken gaiak. Xehetasun tekniko, politiko edota historikoegiek sor ditzaketen oztopo guztiak gainditzea litzateke zuhurrena ereduazko drama josterakoan askatasun osoa izateko. Maisuari lagako diot berba egiten: «Adimen abstraktuarendako bakarrik zentzua duten giza eragile hutsei lekua uzten dietenean besterik ez da gertatzen poetiko izena daukan motiboa gizakiaren bizitzan. Joera hau (gai poetikoa asmatzearena) forma eta antzezpen poetikoa gailentzen dituen legea da... Erritmoaren moldaketak eta errimaren apaindurak (ia musikalak) ematen die indarra neurtitz eta esaldiari, poetaren iritziz, eta indar horrek sentimendua menperatzen duen xarma eragingo du. Poetarentzat funtsezkoa den joera honek bere artearen muturrera eramaten du dena. Mutur honek musika ukitzen du berehala, eta ondorioz, bukatu eta gero musika ezin hobe bihurtuko dena izango da poetaren lanik osatuena».

«Hortaz, *mitoa* poetaren gai perfektutzat hartzeko bideratua izan nintzen. Mitoa herriaren jatorrizko olerki anonimoa da. Kulturadun garai

guztietan agertzen zaigu mitoia, poeta handiek hartua eta gelditu barik eraldatua. Izan ere, giza-kiak arrazoi abstraktuak baino uler ez dezakeela esaten duen konbentzioa kendu diote giza harremanek mitoari. Bizitzan benetan gizatiarra dena erakusten dute, betiereko ulergarria dena eta imitatu ezin dena era jakin honetan erakusten dute. Honek mito orori ematen dio bere ezaugarri den izaera berezi hori.»

Beste behin eta gai bera berrartuz, zera esaten du Wagnerrek: «Betirako utzi nuen historia-  
ren esparrua kondairarenean geratzeko... Alde batera laga nitzakeen honela gertakari historikoa eta bere gorabeherak deskribatu eta adierazteko behar diren xehetasun guztiak, gaur egungo drama eta nobelagileek asmatu egin behar duten antzinako garai berezi bat ondo ulertzeak eskatzen dituen xehetasunak ere ahaztu egin nitzakeen honengatik, zirkunstantziako arrazoi bati esker... Edozein garai eta herritan, kondairak gizatiarra ez dena erakusteko abantaila dauka, eta modu original eta nabarmenean aurkez dezake, honela lehengo begiratuan ulertzen baita. Balada bat edota esaera



zahar bat nahikoa dira une batean modu zehatz eta hunkigarrienean adierazteko izaera hori... Eszenaren izaera eta kondairaren tonuaren artean ametsezko egoera bat ematen diote gogoari. *Amets* honek *argitasuna* ekartzen du eta gogoak munduko gauzak lotzeko modu berria asmatzen du. Begiek ezin diote honi antzeman ohizko esna-aldian egonik».

Nola ez zuen ba primeran ulertuko Wagne-rrek mitoaren izaera sakratu eta zoragarria, aldi berean poeta eta kritikaria baldin bada? Bere gaitasun handia eta kritikatzeko adimen izugarria zergatizat hartuta bere musikarako talentua fidagarria ez zela esaten duenik sarritan ezagutu dut. Hain arrunta den hutsegite hau gezurtatzeko aukera egokia dugula uste dut, hutsegite honen arrazoi nagusia giza sentimenduetan zatarrena da agian, bekaizkeria. «Bere artearen gainean hainbeste hausnartzen duen gizonak ezin du artelan ederrik sortu modu naturalean», esaten dute batzuek, gisa honetan bere arrazionaltasunari jeinua kendu eta egokitzen dioten eginkizuna zeharo senezkoa litzateke, begetala, nolabait esatearren. Beste batzuek euren teo-

rien balioa egiazatzeko, operak egiten dituen kritikotzat hartu gura dute Wagner. Uste hau, gezurra izateaz gain, ezinezkoa da. Jakina denez, maisua oso gazte hasi zen mota askotako poesia eta musika saiakerak idazten, eta denboraren poderioz besterik ez zen iritsi drama lirikoaren eredia asmatzera. Artearen historian, gauza berria ematen du kritikaria poeta bihurtzeak, baita lege psikiko guztien asaldurak ere, muntrokeria hutsa da hau. Poeta handi oro, berez eta halabeharrez, kritikari bihurtzen da, ordea. Senak bakarrik zuzenduta ibiltzen diren poetak erruki ditut, osatu gabeak begitantzen baitzaizkit. Baina lehengo bizitza izpiritualean krisia jazotzen da nahitaez, euren artean hausnartu egin gura dute, sortzerakoan izan dituzten lege ilunak asmatu, eta gero poesia hutsik gabe sortzea den xede zerutiarra lortzeko arauak asmatu ikerketa honen bitartez. Miragarria litzateke kritikari bat poeta bilakatzea eta ezinezkoa poeta kritikaria ez izatea, hein batean behintzat. Irakurlea ez da harririk ba kritikoetan hoberenari poeta deritzotela esaten badut. Wagner musikariari bere artearen filosofiari buruzko liburuak

idaztea gaitzetsi eta bere musika sorketa naturala ez dela susmatzen duten horiek, Da Vinci, Hogarth edota Reynoldsek pintura onak egiteko gauza zirela ere ukatu beharko lukete, euren artearen hastapenak asmatu eta aztertu egin zituztelako. Artearen gainean gure Delacroix handia baino hobeto nor mintzatzen da? Diderot, Goethe, Shakespeare eta abar, guztiak dira sortzaile bezain kritikari miresgarriak. Behin poesia agertuta, finkatu egiten da eta gero arauen ikerketa eragiten du. Giza lanen historia honelakoa izan da ezinbestean. Beraz, norbera jende guztiaren txikigarria denez, eta buru bakoitzaren bilakaerak buru ororen bilakaera neurri txikian adierazten duenez, Wagnerren pentsakizunen eratzea gizateriaren lanaren parekoa dela pentsatzea zuzena eta agerikoa litzateke.

### III

Gizakiaren bihotza gudu-zelai nagusitzat hartu duten bi printzipioren arteko gatazka adierazten du Tannhäuserrek. Hau da, haragi eta izpirituaren arteko borroka, infernuaren eta zeruaren artekoa edota Satanek Jainkoarekin daukana. Dualtasunhau berehala adierazten du oberturak, eta trebetasun paregabeaz gainera. Zer ez da idatzi zati honi buruz? Hala ere, beste tesi eta iruzkin adierazgarri askoren gaia izanen dela pentsa daiteke. Benetan artistikoak diren lanek berezkoa baitute iradokizun iturri agortezina izatea. Oberturak ba bi kantatan laburtzen du dramaren asmoa, erlijio kanta eta kanta atsegin-zalea. Kanta hauek, Liszten berbak erabiliz: «Bukaeran ekuazioa topatzen duten bi gairen antzera daude sartuta». Lehenik *Erromesen kanta*, lege gorenaren agindupean, bizitzak duen benetako zentzua azpimarratuko bailuen, erro-mesaldi unibertsalaren xedea, Jainkoa, alegia. Baina haragiaren irrikak laster zapaltzen du, gogo guztietan, Jainkoaren barneko zentzua.

Saindutasuna adierazten duen kanta atsegina-  
ren hasperenetan murgiltzen da pixkanaka.  
Benetako Venus, izugarri eta unibertsa, guz-  
tien buruan agertzen da.

Eta *Tannhäuser*-reko obertura zoragarria  
oraindik entzun ez duenak ez dezala maitemindu  
arrunten gaineko kanta imajina, pendizean den-  
bora-pasa, mozkor talde baten ahotsak Jainkoari  
aurre egiten dion bitartean Horazioren hizkun-  
tzan. Ez, ez da hori, gauza jator eta aldi berean  
okerragoa da. Ilauntasuna da, sukarrarekin  
nahasiriko gozamenak larritasunak moztuta.  
Egarria behin eta berriz asetzea agintzen duen  
atsegina, baina ez da sekula asetuko. Bihotz eta  
zentzuen taupada bortitzak dira. Haragiaren pre-  
miazko aginduak. Maitasunak ematen duen ono-  
matopeia hiztegi guztia entzuten da hemen.  
Baina gero erlijiozko gaiak menperatzen du oste-  
ra ere, astiro, mailaz maila, eta beste gaia garai-  
pen goxo batez bereganatzen du azkenean. Izaki  
liluragarriak izaki kaltegarri eta neurrigabearen  
aurrean duen bezain garaipen loriatsua gerta-  
tzen da, alegia, San Migel eta Luziferren alde-  
koa.

Ikerketa honen hasieran aipatu dut Wagne-  
rrek *Lohengrin*-eko obertura ipintzen duen  
indarra, mistikaren sua eta gogoak Jainko konpri-  
maezina lortzeko izaten duen gosea adierazteko.  
*Tannhäuser*-en aurrekoan bezain zorrotz eta  
indartsu ageri izan da kontrako printzipio bien  
borroka adierazterakoan. Nondik atera du mai-  
suak haragiari egiten dion kantu amorratua eta  
gizonaren deabruzko alde horren erabateko eza-  
gupena? Lehenengo konpasak entzuterakoan,  
nerbioak doinuarekin bat datoz, gogoratzeak ere  
dardara ematen du. Ondo osaturiko buru guztiek  
barneratu dituzte infinitu biak, zerua eta infer-  
nua. Eta infinitu hauetariko bat agertzerakoan,  
buruaren erdi horrekin bat egiten dute. Maitasun  
lauso baten dirdai satanikoen ondoren, lilura  
dator, eta segidan, garaipen garrasiak eta esker  
oneko aieneak. Ulu basatiak datoz gero, bikti-  
men kexuak eta sakrifiziogileen hosanna adeiga-  
beak, maitasunaren dramatikoa basakeria beti era-  
man beharko bailitzan, eta haragiaren gozame-  
nak krimenaren plazera ekarriko bailuen, dea-  
bruaren derrigorrezko logikari jarraituz. Erlijiozko  
gaia indarrez sartzen da piztutako gaizkia men-

peratuz. Goranzko joera berrartuz, ordena berre-  
zartzen denean, eta hilzoriko atseginen kaosa-  
ren gainera, dena zuzentzen hasten denean,  
gogoak lasaigarri antzeko bat izaten du, zorione-  
ko librantza. Bigarren koadroaren hasieran erre-  
pikatuko da adierazi ezin den sentimendu hau,  
Tannhäuserrek Venusen haitzulotik ihes egiten  
duenean, benetako bizitzara itzuli egiten da, sor-  
terriko kanpaien erlijiozko soinua entzuten du,  
artzainaren kanta lañoa, erromesen himnoak...  
Eta bidean dagoen gurutzea bide orotan ipini  
behar diren gurutzeen ikur bilakatzen da. Azken  
kasu honetan, Shakespeareren egikera bikain  
eta lasaia gogora ekartzen duen kontraste inda-  
rra ikusten da, gogoari derrigor eragiten diona.  
Oraindik orain lurraren barnean geunden oso  
sakon (Venus, aipatu dugunez, infernutik gertu  
bizi da), giro perfumatua baina itogarria arnas-  
ten genuen, argitasuna eguzkiarena ez zen argi  
bizi batetik zetorren. Tannhäuser zaldunaren  
parekoak ginen, gozamen nekosoak nazkatua,  
*atsekabea gura* zuen hark! Oihu ezin hobe hau  
kritiko ospetsu guztiek miresten diote Corneille-  
ri. Wagnerren kasuan, aldiz, ikusi ere ez dute

egingo. Horrela ba atzera ere bagaude lurrean. Haize freskoa hartzen dugu. Pozak esker onez eta atsekabeak umilki onartzen ditugu. Gizaki koitaduak euren herrira abiatu dira.

Oberturako alde atseginzalea deskribatu nahirik, maitasunaren himno arruntak (galai batek pozarren asmatzen dituen horietakoak) ahaz zitzan eskatu diot lehenago irakurleari. Ez da hemen, izan ere, garrantzirik gabeko ezer. Gainezka egiten duen izate kementsua dugu. Izate horrek gaizkiari eskaintzen dio ongiari zor dion indarra. Kontrako erlijio edota erlijio sataniko bihurtu den neurrigabeko maitasuna da, bizigarri eta kaotikoa. Horrela ba, itzulpen musikala egiterakoan, sentimendurik herrikoienarekin (jendailaren sentimenduekin esan behar nuen) datorren arrunkeriarri ihes egiten dio konpositorak. Horretarako, bidez nahastu den arima sentikor batek sentitzen duen gehiegizko irrika eta kemena, askogura menperaezina azaldu besterik ez du egiten. Ideiaren gauzatze plastikoari dagokionez, halaber, biktima mordo gogaikarriaz gabetu da, zorionez Elvira guztiak baztertu egiten ditu. Venus bakarrean gauzatzen den



idea hutsa ozen eta bokantza handiz mintzatzen da. Ez dugu ikusten hemen ohiko libertinoa neska eder guztien inguruan, gizona oro har baikik, unibertsala. Gizon hau modu morganatikoan bizi da, atseginarean erabateko ereduari jarraitzen dio. Deabru guztien eta Pan handiaren heriotzaren ostean lurrera deserriratuak izan ziren fauno eta satiro guztien erreginarekin batera bizi da, Venus suntsiezin eta zoragarriarekin, alegia.

Lan lirikoak aztertzen nirea baino trebeagoa den beste esku batek *Tannhäuser* bitxi eta ezezagunaren iruzkin tekniko eta trinkoa aurkeztuko lioke irakurleari. Nik, ordea, begiratu orokorra baino ez dut egingo, baina azkarra izanik ere, mesedegarria izango da. Osterantzean, ez al da zenbait pertsonarentzat erosoago leku altu bategatik ikustea paisaia baten edertasuna, bere bide guztiak ibili barik?

Hau da ohartarazi nahi dudana Wagner laudatzerakoan, poema dramatikoari garrantzi egozia ematen badio ere *Tannhäuser* edota *Lohengrinen*ko oberturak zeharo ulerkorrak direla, baita libretoa ezagutzen ez duenarentzat ere. Obertu-

ra honek, gainera, ez du jatorrizko ideia bakarrik adierazten, hau da, drama osatzen duen dualtasun psikikoa, jarraieran espresatzen diren sentimendu orokorrak azaltzeko eredu nagusiak ere nabarmen agertzen dira. Argi geratzen da hau deabruaren doinu atseginzalea eta Erromesen kantua den erlijio motiboa bortizki errepikatzen denean, egintzak eskatzen duen bakoitzean. Bigarren ekitaldiko martxa handiari dagokionez, buru-egonezinaren onespina lortu du aspaldi, eta aipaturiko bi oberturei egindako gorespen bera egin ahal zaio, hemen ere modurik ikusgarri, koloretsu eta erakusgarrienean gura duena adierazten jakin baitu. Ahots aberats eta kemen-tsu hauek, kadentzia dotoreko erritmo ospeduna eta errege martxa entzuterakoan, norik ez luke ospe feudala imajinatuko? Distiraz jantzitako heroiak iradokitzen dizkigute, gizon altuak, borondate handi eta fede tolesgabekoak, plazeretan dotore eta gerran izugarriak.

Zer ez dugu esango ba Tannhäuserren kon-taeraren gainean? Erromara egin zuen bidaiaz, bertan melopeiak edertasun literarioa eutsi eta osatu ere egiten du modu miresgarrian, elemen-

tu biek bat egiten dute-eta. Beldurtzekoa zen zati honen luzera, baina indar dramatikoa ezin hobea da, ikusi dugunez. Hitzek eta musikak dena esaten dute, adierazi, itzuli egiten dute dena eta oso modu positiboan gainera, ezinezkoa baita esateko beste modu bat asmatzea: Tristezia; bekatariak bidaia zakarrean dituen nekeak; bere poza, bekatuak salbuesten dituen pontifize gorenaren ikusten duenean; honek krimena konpondu ezin dela esaten duenean bere etsipena; eta azken finean, galmenak dakarren pozaren sentimendu kontaezina, hain da ikaragarria... Horrela ondo ulertzen da halako atsekabe bat mirari batez besterik ezin dela konpondu, baita zaldunak haitzulara doan bidearen bila jarraitzea, infernuko dohainak topatzeko bere deabruzko emaztearen ondoan.

*Lohengrin*-eko dramak, *Tannhäuser*-enak bezala, izaera sakratu eta misteriozko dauka, baina aldi berean unibertsoa ulerkorra da, kondairaren antzera. Printzesa gazte batek, krimen gogaikarri bat leporatu diotelarik, bere anaiaren hilketari, ez dauka errugabea dela frogatzeko biderik. Jainkoaren judizioak epaituko du haren

auzia. Inguruko zaldunen artean inork ez du printzesaren alde egingo. Baina berak begitazio bitxi batengan du uste osoa, gudari ezezagun bat etorri baitzaio ametsetan. Zaldun hau izango da bere babesia. Mundu guztiak erruduntzat hartzen zuen eta unerik larrienean, izan ere, txalupa bat gerturatzeko da itsasertzetik, zisne batek darama ontzia urrezko kate batetik tiraka. Jainkoaren kopa ederto zainduta zuen gordeleku zoragarriaren barrenetik entzun zuen laguntza erregua Lohengrin-ek, Graal zainduaren zalduna, errugabeen babeslea eta ahulen defendatzailea. Kopa hau birritan bedeinkatua izan zen azken afarian eta Jose Arimateakoak gure jaunaren odol sakratua jaso zuen bertan, zauritik zeriola. Lohengrin, Parsifalen semea, txalupatik jaisten da zilarrezko armadura batez jantzita, buruan kaskoa darama, ezkutua bizkarrean, urrezko tronpa txiki bat alde batean eta bere ezpatari bermatu egiten dio. «Garaipena ekartzen badizut —diotso Lohengrin-ek Elsari— zure senarra izatea gura al duzu?... Elsa, zure senarra izatea gura baduzu... Hitza eman behar didazu: ez didazu sekula galdetuko, sekula ez zara saiaturko nondik natorren jakiten,

ezta zeintzuk diren ere nire izena eta jatorria». Eta Elsak: «Jauna, inoiz ez duzu galdera hori nire ahotik entzungo». Eta Lohengrinek agintza handikiro errepikatu zuenez, Elsak erantzun zion: «Ene babes, ene aingerua, ene salbatzailea! Nire errugabetasunean sendo sinesten duzun hori, zugan federik ez izatea baino zalantza ankerragorik izan liteke? Zuk nire estualdian lagundu nauzu eta nik zintzo beteko dut ezarri didazun legea». Eta neska besarkatuz, zera bota zuen Lohengrinek: «Elsa, maite zaitut!». Wagnerren drametan sarri aurkitzen ditugun elkarrizketa ederrak dauzkagu hemen, jatorrizko magiaz beterik eta sentimendu ezin hobeak handiturik. Handitasunak ez du bat ere murrizten berezko xarma.

Lohengrinen garaipenak Elsa errugabea dela aldarrikatzen du. Baina Ortrude sorginak eta Frederikek, Elsaren galmena nahi duten bi gaizkile, emakume orok duen jakin-mina neskari piztea lortzen dute. Zalantzak ematen zion atsegina galarazten diote. Itsutu egiten dute neska eta Elsak zina hautsi eta jatorria aitortu dezan eskatzen dio senarrari. Zalantzak fedea akabatu du

eta fede desagertuak zoriona eramaten du bera-  
rekin. Lohengrinek heriotzarekin zigortzen du  
Frederik segada batez. Gero, erregearen  
aurrean, gudariak eta herria bilduta zeudelarik,  
bere jatorria aitortzen du: «...Graalaren zerbitzu-  
rako hautatua izan den edonork naturaz gaindi-  
ko indarra jasotzen du berehala. Bertutearen  
bide zuzena defendatzeko kopak urrutira bidali-  
ta denak ere ez du bere indar saildua galtzen  
inork ez badu jakiten Graalaren zalduna dela.  
Baina Graal Sainduaren dohain hau halakoa da,  
begirada ezjakinez antzematen badiote, bereha-  
la ihes egiten du. Horregatik ez da inoiz bere zal-  
dunaz zalantza egin behar, ezagutzen baduzue  
segituan ihes egiten baitu. Entzun orain nola  
amaituko den arazo hau! Graalak bidalia nauka-  
zue ni, nire aitak, Parsifal, bere koroa darama.  
Nik, bere zalduna, Lohengrin dut izena». Zisnea  
berriz agertzen da itsasertzetik, zalduna bere  
mirarizko herrira eroateko. Sorginak, gorrotoak  
harrotuta, zisnea Elsaren anaia dela argitzen du,  
bere xarmadura batek harrapatuta. Lohengrin  
txalupan sartzen da Graal sainduari erregu sutsu  
bat zuzendu eta gero. Uso batek zisnearen lekua

hartzen du eta Godefroi, Brabanteko dukea, agertu egiten da. Zalduna berriz Salvat mendira itzultzen da. Zalantza egin duen Elsak jakin, aztertu eta kontrolatu gura zuen eta zoriona galdu du. Ideala desagertu egin da.

Antzinaroko Psikeren mitoaren antz harrigarria topatuko zion irakurleak kondaira honi, dudarik gabe. Psike ere infernuko jakinguraren biktima izan zen, bere zeruko senarraren sekretua ez zuen errespetatu nahi izan eta zorion guztia galdu zuen misterioa airatzerakoan. Elsak Ortruderi Ebak sugeari bezala aditzen dio. Betiko Eba betiko atzipeak harrapaturik. Herri eta arrazek alegiak elkarri uzten al dizkiote, gizonak jaraunspen, ondare eta zientzia sekretuekin egiten duten gisara? Erraza da hau sinestea, eskualde ezberdinetan sorturiko mito eta kondairek osatzen duten parekotasun moralak hain da harrigarria. Baina pertsona filosofiko bat konbentzitzeko azalpen sinpleegia dugu. Nekazari batek beste bati bere herrian moldatzeko ematen dizkion haziekin ezin da konparatu herriak sortutako alegoria. Betierekoa eta unibertetsala denak ez du moldatu beharrik. Esaten nuen

parekotasun moral hori elezahar herriko guztiek duten kutsu jainkotiarraren modukoa da. Nahiez gero jatorri bakarraren seinale izan daiteke, ahaidetasun ukaezin batena. Baina jatorri hau lehen hasieran eta izaki ororen jatorrian bilatu behar dela ezin dugu ahaztu. Mito hau bestearen senidetzat eduki dezakegu, baina gizon beltza zuriaren anaiatzat eduki dezakegun bezala. Ez dut senidetasuna edota lotura ukatuko zenbait kasutan. Baina beste askotan azaleko antzak eta parekotasun moralak burua nahas dezakete. Landareen metafora berriz ere erabiltzearen, mitoa alde guztietan hazten den zuhaitza da, klima guztietan, eguzki guztien argitan, naturaltasunez eta aldaxka barik gainera. Munduko lau aldetako erlijio eta poesiek honen froga ugari ematen digute. Bekatua, adibidez, toki guztietan dago erredentzioarekin batera, beraz, mitoa ere bai. Betierekoa dena baino gauza kosmopolitagarik ez dago. Barkatuko didazue burutik pasatu zaidan digresio hau. Lohengrinen egilearekin jarraituko dut.

Wagnerrek gehien maite duena ospe feudala dela esan dezakegu, baita indarrez beterik diren



bilera homerikoak ere atsegin ditu, jendetza berotuak, giza elektrizitatea da berak maite duena azken finean. Hortaz, estilo heroikoa berezko kemenez sortzen da. *Lohengrin*-eko eztei eresiak eta *Tannhäuser*-eko Wartburgeko gonbidatuen sarrerak bat egiten dute. Azken hau dotore eta sutuagoa da agian. Hala ere, maisuak, beti fina eta ñabardurazalea, ez du jendetza oihesak sortuko lukeen istilurik adierazi. Kalapita zakarrenak goiena jotzen duenean ere musikak ez du agertzen etiketako arauetan iaioa den jende baten adeitasuna baino. Olgatzen den gorte bat da, eta horditasunik bizienak ere begirunearen erritmoa jagoten du. Jendetzaren poz zalapartatsua tartekatu egiten da eztei-eresi gozo, samur eta ospetsuarekin. Jendearen alaitasun ekaitzak Elsa eta Lohengrinen ezkontza ospatzen duen ereserki zahar eta eztiarekin kontrastatzen du errepikapen anitzen bitartez.

Wagnerrek, Italiarren Aretoan eman zuen lehengo kontzertuaz geroztik, jakingura bizia piztu zion ene belarriari. Apika obra bereko zati ezberdinetan gertatzen zen musika-esaldien errepikatzeak erakarri ninduen, lehenago esan

dudan bezala. Ikusi dugunez, *Tannhäuser*-eko bi motibo nagusien errepikapenak, hau da, erlijiozko motiboa eta plazeren kantua, publikoaren arreta suspertzeko balio izan zuen. Horretaz gain, jendearen gogoak gaur egungo egoera antzeko batean ezarriko du operan gertatzen dena. Lohengrinen askoz ere zorrotzagoa da sistema mnemoniko hau. Doinuak pertsonaia bakoitzari armarrria antolatzen dio, nolabait esatearren. Elezaharrea jokatu behar duen izaera morala eta eginkizuna adierazten du melodiak. Hau argitzeko umila izango naiz eta Liszti eman-go diot hitza. Arte sakon eta fina atsegin duenari bere *Lohengrin* eta *Tannhäuser* liburua gomendatuko diot. Hizkuntza arraro hori erabili arren, hizkuntza anitzen zatiz osaturiko mintzaira, badaki maisuaren erretorika guztia ederto azaltzen:

«Ikusleak bere burua prestatu eta etsi egiten du, badaki ez dituela aurkituko gure ohizko operak osatzen dituzten zati solteak, hemen bilbe baten inguruan bata bestearen atzetik lotuta dator dena. Interes nabarmena izango du ikusleak egilearen prozedura ikusten hiru ekitaldie-

tan.Wagner, esaldi nagusi askoren bitartez, bere drama guztia osatzen duen lotura melodikoa burutzen du. Horretarako erabili duen konbinazio trebe eta poetikoki azkarra sakon hausnartu egin du. Aipaturiko esaldiek egiten dituzten bihurguneez, poemaren hitzen inguruan gurtzatu eta korapilatuz, sekulako efektu hunkigarria sortzen dute. Eta emanaldiko harridura eta inpresioaren ostean hain biziro hunkitu gaituen horretaz jabetu nahi badugu, genero berriko lan honen partiturari behatu nahi izanez gero, txundituta geratuko gara harrapatu ezin diren xehe-tasun eta asmo guztiak direla-eta. Poeta handien zein dramak eta zein epopeiak ez du luzaroko azterketa baten beharrik bere esanahi guztiez ondo jabetzeko?»

«Ustekabeko moduan erabiltzen duen prozedura baten bidez, musikaren eremuak eta asmoak zabaltzen ditu Wagnerrek. Bihotzean eragiten duen boterearekin ez da konformatzen, gizakia-  
ren sentimendu guztiak piztu behar ditu beti, gure ideiak zirikatzeke gaitasuna ere badu, gure pentsamenduarekin mintza daiteke, gogoeta akuilatzen du eta izaera moral eta intelektual

ematen dizkio... Doinuaren bidez pertsonaien jitea eta euren grinak marrazten ditu. Doinu hauek adierazten dituzten grina eta sentimenduak agertzen diren bakoitzean aurrera egiten du melodiak, *kantuan edota akonpainamenduan*. Sistematikoki ematen den iraunkortasun hau antolamendu trebe batekin batera dator. Azken honek eragiten dituen ideia psikologiko, poetiko eta filosofikoak zeharo interesgarriak dira edozeinentzat, baita kortxeak eta kortxeardiak ikur huts edo hieroglifikotzat hartzen dituzten horientzat ere. Wagnerrek gelditu gabe ariketak egitera behartzen ditu gure gogoeta eta oroimena.»

«Hori dela eta, musika eta hunkipen hutsa dena bereizi egiten ditu eta haren berezko xarmari gogoaren hainbat gozamen erantsiko dizkio. *Nekez lotzen diren kanta batzuek* ematen duten plazer erraza zailtzen duen metodo honen medioz arreta berezia eskatzen dio publikoari. Aldi berean, emozio beteginak prestatzen dizkio hau dastatzen dakienari. Bere doinuak *ideien pertsonifikazioak* dira nolabait. Hauen errepikapenak adierazten ditu, botatzen ditugun hitzek

inola ere adierazten ez duten sentimenduak. Bihotzaren sekretu guztiak honela ezagutzea espero du Wagnerrek. Zenbait esaldik, bigarren ekitaldiko lehen agerraldian, adibidez, suge pozoitsu baten gisara pasatzen da operatik, biktimei bildu egiten zaie, euren santu babesleen aurrean ihes egiteko gero. Sarrerakoa, esate baterako, bakanka besterik ez da errepikatzen, goi-agerkunderen berri emateko. Garrantzirik duten egoera eta pertsonaiak sinbolo bilakatuko den doinu baten bitartez adierazten dira. Doinu hauek edertasun bitxikoak direnez, partitura bat aztertzerakoan kortxea eta kortxeaerdien arteko loturei baino begiratzen ez dienari zera esango nioke: opera honen musikari bere testu ederra kentzen badiogu ere, primerako lana izango litzateke.»

Wagnerren musikak, poesia kenduta ere, lan poetikoa izaten jarraituko luke, ondo eginiko poesiak behar dituen ezaugarri guztiak baititu. Bere burua adierazten du poesia honek, gauza guztiak daude ondo lotuta, bata besteari egokিতuta eta barbarismo bat erabil badezaket ezau-

garri baten mailarik gorenara adierazteko, horra: zuhurki *konkatenatuta*.

*Itsasontzi mamua, edo Holandar alderraia*, ozeanotik noraezean dabilen juduaren istorio ezaguna da. Karitateko aingeru batek eroskunderako behar zuen baldintzaren berri ematen dio: *Lurra zazpi urtez behin zapaltzen duen kapitainak bertan emakume leial bat topatzen badu, salbatua izanen da*. Lurmutur arriskutsu bat gainditu gura zuen bakoitzean ekaitzak atzera bota egiten zuen dohakabea eta behin garrasika hasi zen: «Oztopo igarogaitz hau gainditu egingo dut, betikotasun guztian borrokatu behar badut ere!» Eta betikotasunak itsasgizon ausartaren erronkari baietz esan zion. Ordutik aurrera, zoritxarreko ontzia han eta hemen agertu da, hondartza ezberdinetan, beti ekaitzaren atzetik eta heriotzaren bila dabilen gudariak sentitzen duen amorruaz. Baina ekaitzak bukatu egiten du beti eta pirata onik gertatzen da, gurutzearen seinalea eginez. Ontzia kaira ailegatzerakoan ilunak eta serioak dira holandarrak botatzen dituen lehen hitzak: «Epea amaitu da, zazpi urte igaro dira osterara ere. Itsasoak nazkaz jaurtitzen nau

Iurrera... Ai! Ozeano harroa! Egun gutxi barru berriz ere eraman beharko nauzu! Hilobirik ez dago inon! Heriotzarik ere inon ez! Hau da ene kondenazio izugarria... Noiz argituko duzu nire gaua, judizioko eguna, egun goren hori?» Oraingoan ontzi izugarriaren ondoan beste ontzi norvegiar batek aingura bota du. Kapitainek ezagutu egiten dute elkar eta holandarrak «zenbait egunetarako bere etxeko babes, aberri berria...» eskatzen dio norvegiarrari. Sekulako aberastasuna eskaintzen dio hark honi, kapitaina liluratuz, eta azkenik itsumustuan esaten dio: «Alabarik badaukazu? Ene emaztea izan bedi! Ez dut sekula nire aberria lortuko. Zertarako horrenbeste ondasun bildu? Utzi zeure burua konbentzitzen, ezkontza hau onartu eta nire altxor guztiak hartu».

— Alaba dut, ederra, leialtasunez, samurtasunez eta nireganako jaieraz betea.

— Betirako gorde dezala bere aitarentzat duen samurtasun hori, aitarekin leiala izan dadila, horrela senarrarekin ere leiala izango da-eta.

— Bitxiak ematen dizkidazu, perla ordainezina, baina bitxirik preziatuena emakume leiala da.

— Zuk emango al didazu? Gaur bertan ikusiko dut zure alaba?

Norvegiarraren gelan neska ugari mintzatzen dira Holandar alderraiarekin. Sentak, buruan asmo argi bat zuelarik, begiak beti potreta misteriotsu bati zuzendurik zituen eta itsasgizonaren kondenazioa kontatzen duen balada kantatzen du: «Bela odolez gorria eta masta beltza duen itsasontzia aurkitu al duzue? Bertan, gizon zurbilak, ontziko nagusiak atsedean hartu barik zelatatzen du. Lapurtu eta ihes egiten du, epe barik, atsedean barik. Baina egun batean askatasuna lortu dezake, lurrean hil arte leiala izango zaion emakumea topatzen badu... Zeruari eskatu emakume batek bere bihotza eman diezaion laster!

— Haizea kontra zuelarik, ekaitz ikaragarri baten erdian, itsasmutur bat gainditu gura izan zuen aspaldi. Ausardia eroaz blasfematu egin zuen: Ez dut betikotasun guztian etsiko! Satanek entzun egin zion eta hitzez hitz hartu zuen gai-



nera! Eta orain itsasotik alderrai ibiltzea da bere epaia, atsedean barik... Baina dohakabea lurrean askatua izan dadin, Jainkoaren aingeru batek salbazioa nondik etorri ahal zaion esan dio. Ai ene! Aurkituko bazenu itsasgizon zurbil hori! Emakume batek bere bihotza eman diezaion eskatu zeruari!

— Zazpi urtero aingura botatzen du eta emakume baten bila doa lurrera. Norbait gorteiatu egiten du zazpi urtero eta ez du oraindik emakume leialik topatu... Belak zabalik! Aingura jaso! Gezurrezko maitasuna, gezurrezko zinak! Erne! Itsasora! Atsedean barik!» Eta bat-batean, ametsen barrenetik irten zen eta inspiraturik, hau bota zuen Sentak: «Ene leialtasunaz askatuko zaitut nik! Jainkoaren aingeruak zure aurrean ipin nazala! Nire eskutik lortuko duzu salbazioa». Atsekabeak magnetikoki erakartzen du neskaren arima, hau da, bere senargaia, maitasunak baino salbatu ezin duen kapitaina.

Azkenik, holandarra Sentaren aitak aurkeztua agertzen da. Potreteko gizona da bera, paretan esekita den kondairazko irudia. Melmoth izugarria Immalée, bere biktimaren zoriarekin

bigundu zen bezala, holandarrak, zoritxarreko sakrifizioa eginez, neska lasai utzi nahi du. Kondenatuak, errukiz beterik, bere salbaziorako tresna errefusatu egiten du eta presaka igotzen da bere untzira. Familiak eta maitasun arruntak emango dion zorionean laga nahi du Senta. Baina honek ez du etsitzen eta itsasgizonaren atzetik joaten tematzen da: «Ondo ezagutzen zaitut! Zure zoria ezagutzen dut! Lehen aldiz ikusi zintudanetik ezagutzen zaitut!» Gizonak, neska beldurtzeko esperantzaz: «Alde guztieta-ko itsasoei galdetu, itsasoko bazter guztiak zeharkatu dituen itsasgizonari galdetu, ontzi hau ondo ezagutzen du, gizon errukitsuentzat ikaragarria: Holandar alderraia deitzen didate!» Sentak erantzun egiten dio urruntzen ari den ontziari, nekez eta garrasika: «Aintza zure aingeru libratzaileari! Aintza bere legeari! Begira ezazu hil arte leiala natzaizun!» Eta itsasora botatzen du bere burua. Itsasontzia ere urperatu egin da eta olatuen gainetik biziki igotzen dira zerura: holandarra eta Senta dira, itxuraldaturik daude. Zorigabea bere zoritxarrarengatik maitatzea ideia handiegia da bihotz tolesgabe batentzat ez

bada. Oso gogoeta ederra da madarikatuaren salbamena neska baten irudimen gartsuaren esku uztea. Drama segurtasunez landuta dago, modu zuzenean. Egoera bakoitzari zirt edo zart heldu dio Wagnerrek. Sentaren pertsonaiak naturaz gaindiko handitasun erromantikoa dauka, xarmatu eta izutu egiten du aldi berean. Poemak duen sinpletasun handiak efektua sako-nago egiten du. Gauza oro bere lekuan dago, dena dago ordenatuta eta bere neurrian. Antzoki Italiarrean entzun genuen obertura beltza eta sakona da ozeanoa, haizea eta ilunpearen erara.

Ikerlan hau bukatzera beharturik nago. Wagnerren joera eta dramagintza irakurle ezjakin bati ulertarazteko beste esan dudala (gaurkoz behintzat) uste dut. *Rienzi*, *Holandar alderraia*, *Tannhäuser* eta *Lohengrin*-ez gain *Tristan eta Isolda* ere idatzi du, baita tetralogia bat osatzen duten beste lau opera ere; gaia Nibelungen-etatik atera zuen. Bere lan kritikoa ere oparoa da. Lan hau guztia egin duen gizonak Pariseko ergelak dibertitu ditu luzaroan bere asmo handiekin. Urte batez, egunero izan da euren barregarri.

## IV

Alde batera utziko dugu une batez artista handi guztiek euren lanean derrigor sartzen duten alde sistematikoa. Kasu honetan zein bereizgarri duen, bere ezaugarri pertsonala zein den asmatzea geratzen zaigu. Artista batek, izen handi hori benetan merezi duen batek, funtsean berea den zerbait izan behar du, honi esker da bera eta ez beste bat. Ikuspegi honetatik artistak askotariko zaporeekin pareka daitezke, eta gizakiek egin ditzaketen metaforak ez dira nahikoa artista ezagun eta ahalezko guztiak definitzeko, gutxi gorabehera bada ere. Richard Wagnerren baitan dauden bi gizonei jadanik igarri diegula uste dut: gizon ordenatua eta gizon grinatsua. Gizon grinatsua da kontua hemen, gizon sentiberra. Hasiera batetik harritu ninduen gauza batek: *Tannhäuser*-eko alde orgiastiko eta atseginzalean eta *Lohengrin*-eko oberturaren ezaugarri den mistizismoa deskribatzerakoan indar berdina garatzen du egileak. Batean eta bestean asmo, igoera titaniko, dotorezia eta zorrotasun

bera ematen dira. Lehenik eta behin indar bizia, grina eta borondatea begitانتzen zaizkit maisu honen musikaren ezaugarri nagusiak. Musika honek ahotsik gozo edota karrankarienaz adierazten du gizonaren bihotzak daukan gauzarik ezkutukoena. Idealismo asmo bat nagusitzen da bere konposizioetan, aukeratzen dituen gaiak eta metodo dramatikoaren arabera Antzinarotik hurbil dago Wagner. Baina bere espresioak duen indar amorratuari esker benetako izaera modernoaren ordezkaria dugu. Eta zientzia hau guztia, ahaleginak eta buru oparo honek egiten dituen eragiketa guztiak grina liluragarri honen zerbitzuan baino ez daude, umilki eta arretaz gainera. Lantzen duen konturen batean ospe ikaragarria ematen da. Grina honi esker, gauza orori gizagainekoa den zerbait ematen die eta dena ulertu eta ulertarazi egiten du. *Borondate, desira, kontzentrazio, indar bizia* edota *eztanda* hitzek gogoratzen duten guztia sentitu eta asmatu egiten da bere lanetan. Ez dut uste ametsetan nabilenik ezta inor tronpatuko dudanik ere hemen *jenio* deitzen diogunaren ezaugarri nagusiak ikusten ditudala esaten badut. Behin-

tzat oraindaino legez *jenio* deitu duguna azter-  
tzen badugu, esandako ezaugarriak aurkitzen  
ditugu. Arteari dagokionez, gehiegitasuna atse-  
gin dudala aitortzen dut, moderazioa ez zait  
sekula iruditu izaera artistiko kementsu baten  
seinale. Neurrigabeko jite hau dut laket, boron-  
dateak gainezka egiten du eta obretan xartatzen  
da, laba gartsua sumendiko labean bezala.  
Gehiegitasun honek buruko edo gorputzeko kri-  
sien ostean ematen diren atseginaldiak marka-  
tzen ditu maiz, eguneroko bizitzan. Dramaren  
eta musikaren bateratzearen bitartez, maisuak  
egin nahi duen berritzeari dagokionez, zer gerta-  
tuko da? Horretarako ezin da profezia zehatzik  
egin. Oro har eta zehaztu barik hitz egiten badu-  
gu, salmo egilearen modura erran dezakegu  
beheratuak izan direnak goratuak izango direla  
gero. Baina hau gizakiaren kontu guztietan gerta-  
daiteke. Lehenago burugabetzat jo diren gauza  
asko ikusi ditugu jendearen eredu bihurturik.  
Mundu guztiak gogoan du gaur egun Victor  
Hugoren dramek eta Eugène Delacroix-en pintu-  
rek hasiera batean izan zuten aurkaritza gogo-  
rra. Lehenago ikusi dugu, bestenaz, publikoa

banatzen duen auzia gauza ahaztua zela eta orain bat-batean, berpiztu egin da. Wagner berak iraganean topatu zituen *bere ideala finka-tzeko* lehen baliabideak. Gauza bat da egia: operaren gabeziez aspaldi nekatua den jendea bildu egin da bere doktrinen inguruan. Ez da harritzekoa jende letradunak bereziki atsegina izatea poeta eta dramagilea izateaz harro dagoen musikari hau. XVIII. mendeko idazleek, halaber, Glucken lana aldarrikatu zuten, eta Wagnerren lanak gehien gorrotatzen dituztenei igarri egiten zaie honen aitzindariari ere badioten higuina.

*Tannhäuser*-en arrakasta edo porrotak ezin du azken finean ezer frogatu, ezta etorkizuneko zoriona edota zoritxarra erabaki ere. *Tannhäuser* lan gogaikarritzat hartuta ere goraipa zatekeen. Ezin hobetzat harturik, aldiz, jendea haserraraziko zukeen. Opera eraberritzearen auzia, izan ere, ez da agortu, gatazkak jarraitu egingen du, eta behin baretuta berriz ere hasiko da. Duela gutxi entzun nuen Wagnerren dramak arrakasta lortuz gero gorabehera isolatua litzatekeela esaten. Horrela ba, bere metodoak ez luke drama lirikoaren zori eta aldakuntzetan eraginik izango.

Iragana ikertuz, betiko guztia, alegia, erabat kontrakoa esan dezaket nik, hau da, porrotak ez lukeela inolaz ere deuseztuko antzeko saialdiak egiteko aukera. Gertu dugun etorkizun batean egile berriek eta aspaldiko gizon ospetsuek ere nolabait ustiatuko dituzte Wagnerrek igorritako ideiak, berak zabaldutako bidetik zoriontsu pasatuko dira. Zein historiatan irakur daiteke auzi handiak liskar bakar batean gal daitezkeenik?

1861, martxoak 18.



# BESTE LAU HITZ

«Saioa eginda dago! *Etorkizuneko musika* ahaztuta dago!», txilio egiten dute pozarren azpikari eta izorratzaileek. «Saioa eginda dago!», errepikatzen dute foiletoiko babo guztiek. Eta batera erantzuten dute inozo guztiek, lañoki: «Saioa eginda dago!».

Saio bat, hain zuzen ere, eginda dago, mundua bukatu aurretik hamaika aldiz berregingo den saioa. Hasteko, benazko eginkizun handiek ezin dute gizakien gogoan sartu edota historian lekua hartu ihardukitze bizirik izan gabe. Gainera, hamar burugogor txistuka jendea eta antzezleak nahasteko eta jendearen borondate ona deusezteko gauza dira. Orkestra baten ahots izugarria ere zaputz dezakete, ahotsak itsasoaren indarra izanik ere. Laburbilduz, eragozpen interesgarri bat frogaturik geratzen da: urte osorako abonua eman dezakeen sistema batek aristokrazia antzeko bat sortzen du. Honek jendarte gehiena bazter dezake opera-lan bat juzgatzerakoan, arrazoi edo interes jakin batzuk direla-eta.

Beste antzokietan, Comédie-Françaisean, adibidez, ezarri dezatela abonua sistema bera eta berehala ikusiko genituzke arrisku eta iskanbila berdinak. Talde murriztu batek lan bat preziazteko eskubidea lapurtuko lioke Pariseko publiko handiari, aburua guztion kontua izanik.

Wagnerrez libratu dela uste duen jendea bizkorregi poztu da, argi esan dezakegu. Garaipena isilago ospa dezaten eskatuko diet, bestalde, oso garaipen ohoretsua ez delako izan. Etorkizunera-ko konformidade karga ona lortzeko ere gomen- datuko nieke. Nekez ulertzen dute gizakien joko kulunkaria, grinen itsasgora eta itsasbehera. Ez dakite zer-nolako eroapen eta temaz hornitzen dituen probidentziak izendatzen dituen kargudunak. Erantzuna agertzen hasia da egun, gaitzus- teak, ergelkeriak eta ohikeriak bat eginik, Wag- nerren lana zokoratzen saiatu ziren egunean hasi zen. Bidegabekeriaren neurriak begikotasun handia eragin du eta alde guztietatik agertzen da orain.

\* \* \*

Paristik urrun bizi direnei, gizaki eta harri mordo honekin liluratu eta kikilduta geratzen diren pertsoneri gauza misterioitsuak irudituko zaie *Tannhäuser* dramak eragin duen ezusteko pasadizoa. Baina erraza izanen da azaltzea zenbait arrazoiren pilaketa. Batzuek ez dute, gainera, artearekin inolako zerikusirik. Arrazoi nagusia aitor dezagun berehala, Wagnerren opera benazko lana da eta arreta jarraia eskatzen du. Asmatuko dugu baldintza honek berekin dakarrena, alegia, mesede gutxi. Herri honetan antzinako tragediak dibertimendurako ematen zuen aisetasunari esker zuen arrakasta. Italian izozkia jaten eta marmarrean aritzen dira dramaren pausaldian, modak ez baitu txalorik onartzen, Frantzia kartetan jarduten dute, ordea. «Lotsagabea zara zu, etengabeko arreta izatera behartu gura banauzu —botatzen du abonatu setatsuak—, ene adimena erabiltzeko parada baino plazer liserigarria ematea nahi dut nik». Zio nagusi honetaz gain, mundu guztiak ezagutzen dituen (Parisen behintzat) beste batzuk baditugu. Aginte inperialak, eta nire ustez eta inor zuri-katu gabe, printzea ondratu egiten duena eta

benetan esker dezakeguna, jelskor asko altxatu du artistaren kontra, eta babo hauetariko askok egintza burujabea egiten dutela uste dute aho batez zaunka egiterakoan. Kazetaritzari eta hitzari zenbait askatasun eman zien dekretuak nahaste natural bati eman zion bidea. Nahaste hau, luzaroan erreprimetua, animalia zoro baten pare oldartu zitzaion ondotik pasatu zen lehen-goari, eta bidezko hau *Tannhäuser* izan zen. Estatu buruak baimendu egin zuen obra eta atzerriko enbaxadore baten emazteak aho betean babesturik gainera. Hau da aukera ederra, hau! Frantsesez betetako areto oso bat emakume honen nahigabearen kontura dibertitu ziren eta, gutxiago jakin dena, Wagner andrea bera iraindu zuten emanaldi batean. Garaitza miresgarria!

Eszenaratzea eskasa baino eskasagoa izan zen, vaudevillegile zahar batek egin (Hiriko jauneria Clairville jaunak eszenaturik imajinatzen al duzue?). Orkestraren joaldia, aldiz, biguna eta okerra. Itxaropen apur bat ematen zuen Alemaniako tenoreak etengabe desafinatu zuen. Erdi lo eta zarpail zuriez estalita zen Venusek ez zuen

Olinpotik jaisten denaren tankerarik, Erdi Aroko artista baten irudipen fazatiak sortua ematen zuen, ordea. Publikoa uzkur agertu zen, asmo idealen axolarik ez zuen jendetzak betetzen zituen eserleku guztiak emanaldi bietan. Gauza hauek guztiak ere bai kontuan izan behar ditugu. Sax anderea eta Morelli bakarrik atera ziren onik ekaitzetik eta hauxe da eskertzeko aukera ezin hobea. Euren talentua besterik ez goraiatzea ez zaigu komeni, ausardia ere laudatu behar baitzaie. Porrotari eutsi egin zioten eta estropezu egin barik egilearekin leial mantendu ziren. Morelli, Italiako bizitasun miragarriaz, egilearen estilo eta gustuarekin konformatu zen, apalik. Kantari honen lana ikertzeko aztia izan dutenek mantsotasun hau onuragarri izan zuela esaten dute, ez dela inoiz Wolfram-ena egiten bezain zoragarri agertu. Baina zer esan Niemann jaunari buruz, bere makaltasun eta amorraldiez, mizke hazitako umea bailitzan? Frédéric, Rouvière eta Bignon berak, ospe gutxiago izanik ere, antzokian eragindako zurrunbiloak ikusi eta gero zer esan? Publikoaren hanka-sartzeari buru egin zioten, haren bidegabekerari ahalegin handia-

goa kontrajarriz eta egilearekin bat eginez. Azkenik, dantzaren arazoak ere ez zuen mesede handirik egin. «Dantzarik gabeko opera! Zer da hau?» esaten zuen ohikeriak. «Zer da hau?», esaten zuen aretozainak. «Kontuz ibili!», esaten zion ministroak egileari, izututa. Kontsolazio gisa, Prusiako soldadu batzuk ipini zituzten eszenan, gona motzez jantzita eta soldadu eskola bateko imintzio mekanikoak eginez. «Hau da balet eskasa eta dantzarako egina ez den dantza». Esaten zuten ikusle batzuek zango hauek guztiak ikusterakoan, eszenaratze eskasak pozturik. Baina zera erantzuten zuen zentzuak: «Hau ez da baleta, bakanala izan beharko luke, orgia musikak agintzen duen erara, Port-Saint Martinen antzezten dakiten bezala antzeztuta, Ambigun, Odon-en eta antzoki kaskarragoetan ematen den erara. Baina hau ezin da operan eman, hemen inork ez daki zertan ari den. Gainera, ez da arrazoi literariorik izan agerraldi oso bat kentzeko (Venusen agerpen berria), tramoia-ri baldarren errua baizik.

Operako dantzarien artean maitale bat izateko aukera duten gizonak euren erosketaren jeinu

eta edertasuna ahalik eta gehien argitaratu nahi badute ulertzekoa da, jende guztiak erraz zuritu-ko du ia aitatiarra den sentimendu hau. Baina gizon hauek, jendearen jakin-mina eta gozame-naz arduratu barik, atsegin ez duten lan bat egi-tea galarazten dute, hau ez baita babestuaren-tzat lagungarria, eta hau ezin da inola ere onar-tu. Ohiturei zintzo eutsi eta zuen harena gorde ezazue, baina zuen modura pentsatzen ez dute-nek gustuko gozamenik topa dezaten, antzoki bat eman iezaiezu. Horrela ba zuetaz libratuko gara zuek gutaz libratzen zareten bitartean.

Odol bero hauei biktima kendu gura zioten obra igandean aurkeztuz, hau da, abonatuak eta Jockey-club-ak borondatez uzten dietenean are-toa, lekua eta aisia aprobetxatzen duen jende-tzari. Abonatuak, ostera, arrazoiketa aski zuzena asmatu zuten: «Egun arrakasta izatea onartzen badugu, administrazioak aitzakia nahikoa izanen du obra hogeita hamar egunetan zehar inposa-tzeko». Eta erasoari berriro ekin zioten modu guztietako armaz horniturik, hau da, alde zurre-tik prestatutako tresna erailez. Bi ekinalditan borroka egin zuen publikoak, publiko osoak gai-

nera. Borondate onez betea eta haserreak kemendua, edertasun zoragarria ez ezik, harritu eta nahastu egiten zuten pasarteak ere txalokatzzen zituen, bai joaldi ilunekoak eta bai ondo preziatzeko ezinezko baitaratzea behar zuten pasarteak ere. Baina haserre edota berotasun eztanda hauek berehala eragiten zuten kontrakoen erantzuna, antzeko indarrez baina neke txikiagoz sortua. Jende honek, apaltasunez kalapita arindu nahi zuen eta isildu egiten zen, oroz gain ezagutu eta juzgatu nahiz. Baina zenbait txistuk adorez jarraitu zuten, arrazoi barik eta etengabe. Erromako bidaiaren kontraera miragarria ezin zen entzun (kantatu egin al zen? Ez dakit.) eta hirugarren ekinaldi guztia kalapitan murgildu zen.

Prentsan erresistentzia eta gaitzespen bat ere ez, Franck Marie jaunak *La patrie* egunkarian egin zuena salbu. Berlioz jaunak aburua ematea saihestu du, adore txarrez. Irain orokorrarekin bat egin ez zuela esker diezaiozun. Luma guztiak erakarri ditu gero imitazio zurrunbilo handi batek, aho guztiak zoratu egin dira, jendeak mirari ausart eta koldarrak txandaka egiten



dituenean bezala, taldeko adore eta txepelkeria, berotasun frantsesa eta galiarren ikara izan dira nagusi.

*Tannhäuser*-ez zen entzun ere egin.

\* \* \*

Eta orain aieneak ugari dira, guztiek nahi dute Wagnerren obra ikusi eta guztiak kexatzen dira tiraniaren aurka. Baina administrazioak burua makurtu du azpikari batzuen aurrean, eta hurrengo emanaldietarako ipini den dirua itzuli egin da. Ikuskizun bitxia dugu horrela, lehen izan genuena baino lotsagarriagoa agian, zuzendaritza garaitua ikusten dugu. Honek, jendearen kemena kontra izan arren, ez du gura emanaldi emankorragorik egin.

Bestenaz, gertatua zabaltzen ari dela ematen du eta publikoa ez da epaile gorentzat hartzen antzezpenari dagokionez. Lerro hauek idazten ditudan une berean jakiten dut drama eder bat, egitura miragarrikoa eta estilo bikainean idatzia dena, desagertu egin behar dela beste eszenatoki batetik. Hala ere, ospea izan zuen nahiz eta

klase ikasia deituriko kasta indargabe horrek kontrako ahaleginak egin. Gaur egun itsasportuko publikoak baino bihotz eta sentikortasun gutxiago du jende horrek. Egia esateko, ohorea bezalako gauza fin eta xehe baten bidez publiko hori hunkitzea espero bazuen egileak burutik jota dago. *Ohorea lurperatzeko* trebeagoa da jende hau.

Zein ote da egozte honen arrazoi misterio-tsua? Arrakastak zuzendariaren etorkizuneko lanak izorratuko ote ditu? Erabaki ofizial ulertezin batek bere ongura bortxatu ote du, bere probetxuaren kontra? Gauza izugarriagoa ere pentsatu daiteke. Hau da, zuzendariak drama onak nahi dituenaren alegia egin dezake bere burua goratzeko, xedea lortu eta gero bere egiatako gustua berreskuratuz. Tentelaren gustua da hau, eta agerikoa da mesedegarriagoa dela. Kritikari-ahulezia oraindik ulergaitzagoa dugu (euren artean poetak ere badaude). Etsaia goratu egiten dute eta suhartasunaldi bat izaten badute inoiz merkantilismoa gaitzesten diote, baina beste kasu anitzetan merkataritza honi bihotz ematen diote goikoari gustu eginez.

Zalaparta horretako txiste negargarriek lotsaz gorritzen ninduten, gizon sentiberaren aurrean zerrikeria bat egiten denean bezala. Ideia anker bat ezin nuen burutik kendu. Beti zaindu dut neure burua kontu handiz, burua nahasten duen gehiegizko abertzaletasunetik, baina behin gertatu zitzaidana gomutatu zait orain. Urrutiko hondartzetan, oso pertsona ezberdinek osaturiko mahainguruetan izugarri sufritzen nuen ahotsen batek (zuzena edo bidegabea, ez du ardura) Frantzia barregarri uzten zuela entzuten nuenean. Maitasun sentimendu guztiek, filosofikoki estututa, eztanda egiten zuten orduan. Duela zenbait urte, akademiko deitoragarri bati, bere ongi etorri hitzaldian, Shakespeareren jeinuari buruzko hautematea egitea bururatu zitzaionean, dardaraz sentitu nuen pedante ezikasi hark nire herriari egiten zion mina. *Williams zaharra* edota *Williams ona* deitzen zion trebantziaz —hautemate hau Comédie-Françaiseko atezain batentzat da egokiagoa—.

Hainbat egunetan, izan ere, Ingalaterrako egunkari guztiak gure kontura jostatu ziren, eta modu penagarrian gainera. Frantziako idazleek, hau entzuterakoan, ez omen zekiten ezta nola idatzi Shakespeareren izena eta bere jeinuaz ere ez omen zuten ezer ezagutzen. Frantzia astotuta zegoen eta bi egile besterik ez zuen ezagutzen, Ronsard eta Dumas semea, *Inperio berriaren poetarik gogokoena*, gaineratu zuen *Illustrated London News*-ek. Gorroto politikoa iraindua izan den abertzaletasun literarioarekin nahasten dela azpimarratu beharra dago.

Beraz, Wagnerren lanak piztutako istiluak gertatzen ziren bitartean zera esaten nion nire buruari: «Zer pentsatu behar du Europak gutaz? Eta Alemanian zer esanen dute Parisen gainean? Hona hemen guztioi ohorea kendu diguten lis-kargile gutxi batzuk!». Baina ez, hau ez da horrela. Idazle, artista eta kaleko jendearen artean ere ongi hezitako pertsona asko geratzen direla uste dut, jakin badakit, hobeto esanda, zin egingo dut. Jende hau zuzentasunaz dohaturik dago eta beti du burua prest eskaintzen zaizkien berrikuntzak jasotzeko. Alemaniak gaizki egingo luke

pentsatzen Parisen mukiak atzamarrekin kentzen dituzten barrabasak besterik ez direla bizi, gero mukiak pasatzen den gizon handi baten bizkarrean garbitzeko, gainera. Honelako uste bat ez litzateke guztiz inpartziala. Alde guztietan piztu da erantzuna, esan dudan bezala. Ezusteko begikotasun adierazpenek egileari adorea eman diote bere xedeari eusteko. Gauzek horrela jarraitzen badute nahigabe asko laster arindu egingo direla espero daiteke, baita *Tannhäuser* berriz emango dutela, baina beste leku batean, Operako abonatuak obra jazartzeko interesik ez dezaten izan.

Azkenean ere ideia bota dugu, sargunea egina dago, gauza inportantea da. Wagnerrek emandako ideia mesedegarriez baliatuko da musikagile frantses bat baino gehiago. Obra duela gutxi argitaratu zen, enperadorearen aginduz, zeinek mesede handia egin baitio izpiritu frantsesari. Izpiritu logikoa da hau, ordena du gustuko eta bere bilakaerak erraz berrartuko du martxa. Errepublika eta lehen Inperioaren agintepetan musikak oso maila altua lortu zuen, garai honetako gauzarik miragarrienetakoa bihurtuz,

literatura uzkurtu egiten zen bitartean. Bigarren Inperioko buruak gure ondokoek ahoan zuten gizonaren lana entzuteko jakin-mina sentitzen zuen ala gogoeta abertzale eta argiagoak eraginda jardun al zuen? Edozein kasutan guztiontzat izan da mesedegarri bere jakingura.

1861, apirilak 8

## **Idazleak Richard Wagnerri idatzi zion mirespen eskutitza**

1860ko otsailak 17, ostirala.

Jauna,

Beti pentsatu dut artista handi bat, ospearekin oso usatua izanik ere, hunkitu egin zitekeela egiatako konplimendu baten aurrean, konplimendua esker oneko garrasia izanez gero. Garrasi hau, gainera, gauza bitxia da frantses batek botata, nekez hunkitzen baikara gu. Nire herrian musikak baino ahots ozenagoa dauka poesiak edo pinturak. Lehenengo eta behin, *inoiz sentitu dudan goramen musikalik handiena*

zor dizudala esan nahi dizut. Jadanik ez daukat gizon sonatuei idazten olgatzeko adinik, baina nire mirespena adierazteko zalantza oro desagertu zait artikulu iraingarriak egunero irakurri eta gero, barregarriak benetan, egin ahal guztiak egiten dituzte zure jeinua laidotzeko. Lehenago ere eman dit oinaze eta lotsa nire herriak beste zenbait gizon iraintzeagatik. Sumindurak azkenean nire esker ona adieraztera bultzatu nau. Nire burua ergel hauengandik bereizi nahi nuela pentsatu nuen.

Antzoki Italiarrera zure lana entzutera ez nintzen jarrera onaz joan. Aurreiritziz beterik nintzela aitortzen dut. Baina barkatu egingo didazu, maiz sartu didate ziria eta asmo handiz beteriko berbontzi askoren musika entzun dut. Zuk segituan erakarri ninduzun. Adierazi ezin den zerbait sentitu nuen eta barre ez badidazu egiten, hori azaltzen saiatuko naiz. Musika ezagutzen nuela iruditu zitzaidan aurrena. Ondoren, pentsatu eta gero, mirari honen jatorria ulertu nuen, musika hau *nire musika* zela iruditu zitzaidan, eta gizonak berari atsegina izateko egin diren gauzak ezagutzen dituen erara ezagutu nuen nik. Zorrotza

ez denari barregarria oso irudituko zaio esaldi hau, batez ere nire antzeko norbaitek idatzia, *musikaz ez baitakit ezer*, Weber eta Beethovenen zati batzuk entzuteak (gozamen handiz, hauxe bai da egia) besterik ez du osatzen nire heziketa.

Handitasunaren ezaugarriak hunkitu ninduen jarraian. Handitasunaren irudia ematen da eta handitasunera iristeko indar egiten da. Naturaren hots eta ezaugarrien handitasuna eta gizonaren irrikeria ere igarri nizkien zure lanari. Norbera txunditua eta liluratua sentitzen da berehala. Erliziozko estasia irudikatzen duen zatia bitxienetarikoa da eta musikak inoiz eman didan zerbait sentiarazi zidan. *Gonbidatu*en *sarrerak* eta *Eztei-jaiak* sortutako efektua izugarria da. Gurea baino handiagoa den bizitza baten handientza sumatu nuen. Beste gauza bat: sentimendu nahiko bitxia jasan nuen, ulertu egiten nuen, musikak bereganaturik, airez aire edota itsasoaren gainetik ibiltzearen antzeko atsegin sentsualaz, eta hau guztia harro eta pozik gainera. Eta musikak bizitzaren harrotasuna barreiatzen zuen aldi berean. Harmonia sakon hauek,



orokorrean, irudimena bizkortzen duten sustagarrien gisakoak begitandu zitzaizkidan. Azkenean ere, eta barrerik ez egiteko eskatzen dizut, ene izaera eta ohiko ardurek eragindako sentsazioak nabaritu nituen. Gauza oro da zorrotza eta erakargarria, gora egiteko gogoia sumatzen da, neurritz gainekoa eta itzela den zerbait. Pinturatik hartutako konparazio batez baliatzen banaiz, adibidez, azalera handiko gorri iluna ikusten dudala asmatuko nuke. Gorri hau irrikaren irudia baldin bada, pixkanaka iristen dakusat, gorri eta arrosa guztietatik iraganez, suaren goritasuna izatera. Zaila eta agian ezinezkoa ere ematen du suhartasun biziagorik lortzeak. Azken suziriak, ordea, atzealdeko zuria baino zuriagoa den lorratza marrazten du. Arimak botatzen duen goieneko oihu asaldatua dugu hau, irudia atsegin baduzu. Entzun ditugun *Tannhäuser* eta *Lohengrin* zatiei buruzko zenbait gogoeta idazten hasia nintzen, baina dena ezin dela esan onartu dut.

Hortaz, betiko jarrai nezakeen gutun hau. Irakurri ahal izan baduzu, benetan eskertzen dizut. Berba gutxi batzuk erantsi besterik ez zait gelditzen. Zure musika entzun nuen egunetik zera

esaten diot neure buruari etengabe, batez ere une txarretan: Gaur gauean Wagner apur bat entzun banezake bederen... Nire moduko gizon gehiago daude zalantzarik gabe. Laburbilduz, kazetarien lan eskasa gainditzeko beste sena izan duen publikoarekin pozik egon behar duzu. Zergatik ez zenuke emango beste zenbait kontzertu zati berriak gaineratua? Gozamen berriez beteriko gustu aurreratu bat erakutsiko diguzu. Eskubiderik baduzu espero dugun gainontzekoa ukatzeko?

— Berriz ere, jauna, benetan eskertzen dizut zure lana.

CH. BAUDELAIRE

Nire helbiderik ez dut erantsiko, apika zerbait eskatu gura dizudala pentsa zenezake-eta.